

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **25/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, etxebizitza eskubideari eta etxebizitza hutsen alokairuari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

25/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, etxebizitza eskubideari eta etxebizitza hutsen alokairuari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter dezala, Euskadiko Zerga Koordinazioko organoaren barruan, neurri fiskal eraginkorrak eta efizienteak herritarren etxebizitza-eskubidearen eta etxebizitzak bete behar duen zeregin sozialaren ingurukoak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote jarrai dezala etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko neurriak, hala nola Bizigune Programa edo ASAP, bai eta aurten indarrean sartuko den etxebizitza hutsen dekretu-proiektuan jasotakoak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**